

GOGORKERIA ALA BAKEA?

Urte batzutan jokabide gogorraren ekintzak eta ondorenak ikusi ondoren, gaur giro barri baten aurrean aurkitzen gara, su-etena iragarri danetik aurrera.

Gogorkeria aundiai dagokien jokabidea da. Aundia danak gogor eginda txikiagoa zapaldu egiten dau.

Nondik sortu da orduan eta zelako indarra euki dau aspaldion gure artean izan da gogorkeria? Or dago txikien gogorkeria dan bide bat, uriko gudaketa txikia edo "guerri-lla urbana" deritxona. Eta miragarriak dira lortzen dauzan ondorenak. Sarritan laterri aundiak ezin izaten dabe azpiratu ezelan be guda txiki onein indarra. Ori leku askotan ikusten da, batez be Ego-Ameriketan, eta ori ikusi da geu-

eta obarantza doa. Europaren barruan, ziur nago, erri txikiak berba egiteko aukerea izango dabe. Eta olako erriak asko be asko dira Europa zabalean. Daukagun edestia daukagulako nortasunik geien daukan erri txikia Euskalerrria izango da, bear ba'da. Ba-daukagu or zeregin aundi bat! Errien eskubideen alde jokatzeko zeregiña!

Baiña alkar-izketearen bidez ezer lortu nai ba'dogu, baldintza batzuk bete bear doguz. Lenengo baldintza guztiok batera jokatzeko da. Aspaldion alderdi politikuak izan doguz jaun eta jabe, eta erakunde oneik erria banatzeko arriskua dauke. Alderdi guztiak bat egin bear dabe erriaren eskubideak zaindu bear diran orduan. Errialde

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (2.500 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 2.500 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

re artean be. Baiña ez, erri txikien bidea ez da gogorkeria-rena. Jokabide gogorrean eta guda egiten aundiak dira indartsuagoak. Begiratu gure edestira eta erreiz konturatu-ko zaree gudara sartu-bearra izan dogun bakoitxean gal-tzaille urten garala. Gogoratu Karlostarren gudak, naizta oso-osoan gure gudak izan ez, eta gogoratu azkenengo guda negargarria.

Eta gogorkeria ez ba'da gutzat eta txikientzat jokabide egokia, zein da guri dagokigun jokabidea? Alkar-izketa, politika-jokoa, zalantza barik.

Baiña orrelan jokatu dogunean be galdu ez dogu egin? Euskaldunak España'ko erregeakaz izan dabezan alkar-izketak ez dira izan beti burua ta garria makurtzeko? Ez gara beti atzerantza joan alkar-izketearen bidea artu dogu-nean be?

Ba-leiteke baietz esan-bearra. Ez dogu jakin geure eskubideak bear dan lez zaintzen, ez dogu jakin aundiakaz zelan jokatu bear dan, baiña edestia bizitzaren irakaslea da eta gaur zurrago gagoz. Gaiñera gaur alkar-izketa au ez da txoko baten barruan izaten, une guztietan mundu osoa daukagu begira. Sarritan ez dabez gure arazoak ulertzen, beti izango da burruka egin-bearra, baiña giroa gure alde dator

guztiak ondo alkartuta eta erriko erakunde guztiak bat eginda, abots aundi bat euki geinke munduko errien artean.

Ori eziña dala esango dau norbaitek. Erriaren barruan ainbeste etorri-barri eta ardatza Madrid'en dauken alderdiak daukaguzan artean, ezin lortu olako batasunik.

Bai, or dago koska! Euskalzale edo abertzale ez diran alderdi orreik gaurko jokabidean jarraitu ezker, kaltegarri doguz. Zer egin? Kanpora bota olakoak? Ez, ez da bidezko gauzea, geu be ez ginduezan beste leku askotatik kanpora bialdu. Bideren bat aurkitu bear da alderdi orreik Euskalerrria aintzat artu eta beroneri lagundu dagitsen. Bein eta barriro esan bear dogu Euskalerrrian bizi diranak gure erri au maitatu bear dabela. Abertzale-izena alderdi batzuk daroe, baiña erritar guztiok izan bear dogu erri-zale, erri-laguntzaille. Erriaren buru-jabetza nai ez dabenak be bai, gu Españatarrak izatea nai dabenak be bai. Eta oiñarria ori dala, gero autarkiak esango dabe nogaz alkartu bear garan ala jabetza osoa eskuratu bear dogun. Orreik jokabideak dira, baiña erria bat, maitatu bear dogun erria bat.

OLAZAR'tar Martin